

Pako Sodupe

IDAZLEA

Administrazioan itzultzailea etxekalte?

Aldizkari honetan bertan Koldo Izagierri egindako elkarrizketatik hartzen dut gaia: “Erakunde publikoetan itzultzailearena da kaltegitza hori: itzultzailea dagoenez, alegia, itzulpena beti denez gaztelaniatik geurerakoa, ez da deus sortzen euskaraz. Hori horrela da administrazioerik euskaldunenengan ere”.

Ez da erabateko egia. UEMAn dauden udalerriak alde batera utzita ere –UEMAN dena euskal arrosa dela ez bedi uler!–, seguru sortzen dela euskaraz zenbait udaletxe, aldundi eta EAEko Jauralaritzako sail gutxi batzuetan, eta zertxobait Nafarroa edo Iparraldeko herriren batean, baina, egitak hurbilegi dago, nagusiki gaiari ez zaiolako lehentasunik aitortzen, eta beste hainbat oztopo larri tarteko.

Itzultzailea, esaterako, EAEko administrazio orotan dago, lanpostuei euskararen ezagutza bermatzeko hizkuntza-eskakizunak ezartzen zaizkie, nahiz maiz apalegiak diren, baina, hor amaitzen da gehienetan eta onenean politikarien kezka; hortik aurrera ez dio axola dena edo ia dena erdaraz sortzen bada.

Euskaldunak badu arduratxoa, gehiago eska dezake, baina ardura gutxien duena da. Funtzionarioak ardura handiagoa du. Oro har, joera handia agertzen du errazenera



DANI BLANCO

jotzeko, erdaraz funtzionatzeko, salbuespen merezimendu handikoak salbuespen. Politikariek ardura gehiago dute. Erabat harturik, lehentasunen zerrendan behe-behean dute, erabat ezaxolatzen ez direnean, salbuespen merezimenduzkoak salbuespen.

Administrazioan asko edo dezente sortzen dutenek araudia dute ezinbesteko lagun. EAEEn ez da baliabide aski jartzen ugaritu eta ugaritu ari den araudia euskaratzeko. Noizko, esate baterako, Eraikuntzako Kode Teknikoa euskaraz? Badira arkitektoak euskaraz ari direnak –gutxi baina badira–. Araudia

euskaraz ez badute, baldin eta oinarritzko proiektuak eta egikaritze proiektuak erdaraz jasotzen badi-tuzte, nola egingo dute lan euskaraz? Adibide bat da.

Euskaraz ari denak egiten duen ahalegin osagarria ez da aintzat hartzen ez eskertzen, eta aurkako presio askori egin behar dio aurre hala-koak: politikari elebakarrekikoa egin beharra, hots, erdaratzeko presa, itzultzaileak behar bezala prestatuak ez egotea euskarazkoa erdaratzeko, gisa denez; gutxiz gehienetan, bestera ari direnez gero.

Baliabide gehiago, gidaritza gehiago eta hitz batean, estrategiko jotzea behar-beharrezko dira, Koldo Izagierren iritzi hori luza-(eg)an egitak hurbilegi ibili ez dadin. ■

« Euskaraz ari denak egiten duen

ahalegin osagarria ez da aintzat

hartzen ez eskertzen, eta

aurkako presio askori egin

behar dio aurre halakoak »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Izugarria igaro genuena, teilak hegaka lekuko. Irratia dut kotxeko

lagun. Gure Irratia mutu, Euskadi Irratia kalakari biharamun goizean. Tertulian, hiru ahots bat jostari: “Ez da hainbesterako izan, dezepzionatuta nago” bota zuen batek bere ergelean. Izena ere jarri zioten zikloia izendatu zutenari. Bitartean, Txingudi eta inguruak nituen bistan. Itsasontziak tripaz goiti, zenbait teilatu zulo, tximini batzuk lurrean, eta horietako bat kotxe baten gainean zapalgarri. Haizeak berean jarraitzen zuen fiuka. Arduratuta etxera itzuli eta salan

Haize erauntsi

ura tantoka. Ofizioko laguna hots egin eta igandea izanik ere, itoginak tapatzera jin zen teilatura igota. Argindarra

bezperatik oporretara joana, ahal bezala moldatu ginen bazkaria egiteko. Konjelaterrak eguneratzeko egokiera. Iragarria ziguten zetorkiguna. Eta bete egin zen. Abisatu gabe etorri zena Garzon izan zen, zortzi lagun atxilotu zituen bozketak izozte aldera. Ez dut esango nori emango niokeen nire boza, argi dudana da hautagai bat kartzelan daukaten bitartean ez dudala bozik emanen; besteak –baldintzotan hala ere aurkeztan direnak– lotsagabe alenak madarikatuz. ■